

Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiaren 6/2020 Instrukzioa, ekainaren 11koa, balio erantsiaren gaineko zergan bonuek izan behar duten tratamenduari buruzkoa.

Kontseiluaren 2016ko ekainaren 27ko 2016/1065 (EB) Zuzentarauaren bidez, 2006/112/EE Zuzentaraua aldatzen da bonuen tratamenduari dagokionez, eta arau komun batzuk ezartzen dira bonuen («vouchers» izenez ere ezagunak) tributazio-araubideari dagokionez, Europar Batasuneko estatu kide guztietan gutxieneko harmonizazio-maila bat lortzearren bonuen balio erantsiaren gaineko zergan (aurrerantzean, BEZa) bonuek izan behar duten tributazioan. Arau horiek aplikatzekoak dira 2018ko abenduaren 31tik aurrera jaulkitako bonuen kasuan, estatu kideek aurretik eginiko interpretazioa ezertan ere eragotzi gabe.

Araudi berrian, definizio eta tributazio-arau batzuk ezartzen dira balio bakar eta balio anitzeko bonuetarako, haien tratamendua koherentea izan dadin BEZaren oinarri diren printzipioekin. Helburua da saihestea estatu kideek zeinek bere tratamendua egitea; izan ere, horrek lehiaren distortsioa, zergapetze bikoitza edo zergapetzerik eza ekar dezake. Aldi berean, zergadunen tributatu-betebeharrak beren borondatez betetzea lortu nahi da, saiheste fiskalaren arriskua gutxitzeko.

Edonola ere, Kontseiluaren 2016ko ekainaren 27ko 2016/1065 (EB) Zuzentarauak (haren bidez, 2006/112/EE Zuzentaraua aldatzen da bonuen tratamenduari dagokionez) ez ditu arautzen bonu horien tributazioa ezartzeko beharrezkoak diren elementu batzuk, eta Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauan jasotako arau orokorren pean eta estatu kideek beren interpretazio-irizpideen arabera emandako araudiaren pean geratzen dira elementu horiek.

Maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onetsitako Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren 26. artikuluan xedatutakoaren arabera, BEZA itundutako zerga bat da eta Estatuak une bakoitzean ezarrita dituen edukizko eta formazko arau berberak erabiliko dira hura eraentzeko, salbu eta aitorpena eta sarrera egiteko erduei eta likidazio-aldi bakoitzean sarrerak egiteko epeei dagokienez. Kontseiluaren 2016ko ekainaren 27ko 2016/1065 (EB) Zuzentaraua (haren bidez, 2006/112/EE Zuzentaraua aldatzen da bonuen tratamenduari dagokionez) ez da ekarri barne-araudira: haren arauak Tributuen Zuzendaritza Nagusiaren 2018ko abenduaren 28ko Ebazpenean daude jasota (balio erantsiaren gaineko zergan bonuek izan beharreko tratamenduari buruzkoa da ebazpena).

Hori dela eta, Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiaren ustez, komenigarria da instrukzio hau argitaratzea balio erantsiaren gaineko zergaren bonuen tributazioari buruzko arauak eta irizpideak ezagutarazteko; hala, zergadunen segurtasun juridikoa indartuko da, eta argitu egingo dira Kontseiluaren 2016ko ekainaren 27ko 2016/1065 (EB) Zuzentarauan (haren bidez, 2006/112/EE Zuzentaraua aldatzen da bonuen tratamenduari dagokionez) arautu gabe geratu diren tributazioari buruzko elementu guztiak.

Goian azaldutakoa dela bide, honako hau

EBAZTEN DUT:



1. Bonuaren definizioa, balio erantsiaren gaineko zergaren ondorioetarako.

1.1. Bonuaren definizioa.

Instrukzio honetan ezarritakoaren ondorioetarako, hau da bonua: tresna oro, edozein delarik ere haren sortzeko era, onartua izan behar duena haren edukitzaileak aurkezten duenean ondasun-emate edo zerbitzu-prestazio baten kontraprestazio oso edo partzial gisa, betiere eman beharreko ondasunak edo zerbitzuak edo ondasunen edo zerbitzuen hornitzaileen identitatea ezagunak direnean tresnan bertan edo hari lotutako dokumentazioan —tresnaren erabilerarako baldintzetan barne— jasota daudelako.

Nolanahi ere, instrukzio honen aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira ondasunak edo zerbitzuak eskuratzean titularrari deskontu bat izateko eskubidea ematen dioten tresnak eta «deskontu-bonuak, -baleak eta -kupoiak», aurkezte hutsagatik ondasun eta zerbitzu horiekin trukatzeko eskubidea ematen ez dutenak.

Horrez gainera, instrukzio hau ez da aplikatzekoa ordainketa-bideak diren tresnen kasuan.

Era berean, honako hauek instrukzio honen aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira eta, ondorioz, ez dira egongo bonuei buruzko xedapenen pean: telekomunikazio-zerbitzuen aurreordainketako txartelak eta birkargak, garraio-tituluak, kultura- eta kirol-ikuskitzuetarako sarrerak, postako zigiluak eta antzeko izaerako beste tresna batzuk; izan ere, oro har, erosten direnean ondasun edo zerbitzu baterako —gehienetan, zerbitzu jakin eta individualizatu baterako— eskubidea eskuratu izanaren frogagiria (faktura izan zein ez) suposatzen dute.

Edonola ere, bonuei lotutako eragiketei BEZaren ondorioetarako eman beharreko tratamendua bonuen ezaugarri espezifikoaren arabera da; beraz, arau batzuk ezarriko dira balio bakarreko bonuetarako eta beste batzuk balio anitzeko bonuetarako.

1.2. Balio bakarreko bonuaren definizioa.

«Balio bakarreko bonua» hau da: jaulkitzen denean, bonuaren ondasunak edo zerbitzuak (azpiko eragiketa) ematen diren lekua eta ondasun edo zerbitzu horiek ematearen ondoriozko BEZaren kuota ezagunak dituen, azpiko eragiketa zergapetuta dagoen aplikazio-lurraldea eta aplikatu beharreko zerga-tasa erabat ezagunak direlako edo, hala denean, eragiketa BEZetik salbuetsita dagoelako.

Ondorioz, balio bakarreko bonoak aukera ematen du, jaulkitzen denean, azpiko ondasun-ematearen edo zerbitzu-prestazioaren tributazioa ezagutzeko, BEZaren ondorioetarako. Bestela bada, bonua balio anitzekoa izango da.

Balio bakarreko bonu bat ondasun edo zerbitzu bat baino gehiagorekin truka daiteke baldin eta, ondasun edo zerbitzuen konbinazioa edozein dela ere, jaulkitzen denean jakin badaiteke trukea egitean zer tributazio dagokion transakzio bakoitzari BEZaren ondorioetarako.



1.3. Balio anitzeko bonuaren definizioa.

Bestalde, «balio anitzeko bonoa» izango da balio bakarrekoa ez dena, jaulkitzen denean ezin delako jakin bonuaren azpiko ondasun-emateak edo zerbitzu-prestazioak zer tributazio duen BEZaren ondorioetarako. Zehatzago, balio anitzeko bonua izateko, zergaren aplikazio-lurraldearen barruan edo lurralde horretatik kanpo eginiko ondasun-emateak edo zerbitzu-prestazioak eskuratu ahal izango dira bonuaren truke, edo zerga-tasa desberdinak dituzten ondasun-emateak edo zerbitzu-prestazioak.

Ondasun eta zerbitzu batekin baino gehiagorekin trukatu daiteke balio anitzeko bonu bat, edozein delarik ere ondasun edo zerbitzu horien konbinazioa.

2. Balio bakarrekoko bonuaren tributazioa balio erantsiaren gaineko zergan.

2.1. Bere izenean diharduen enpresaburu edo profesional batek balio bakarrekoko bonuaren eskualdaketa egiten duenerako operatiba.

2.1.1. Balio bakarrekoko bonuaren eskualdaketa.

Bere izenean diharduen enpresaburu edo profesional batek balio bakarrekoko bonu bat eskualdatzen duenean, bonuaren ondasun-emateari edo zerbitzu-prestazioari dagokion tributazio-araubidearen arabera tributatu da eskualdaketa.

Une honetan joko da egintzat balio bakarrekoko bonu baten eskualdaketa eta geratuko da zergaren aplikazio-lurraldean BEZari lotuta: jaulkitzen den unean jakiten denean edukitzaileak bonuaren truke eskuratzen duen ondasun-ematea edo zerbitzu-prestazioa (azpiko eragiketa) egingo den lurralde-eremua eremu hori izango dela, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauan zerga-egitatearen kokalekuari buruz jasotako arauekin bat.

Era horretan, balio bakarrekoko bonu baten azpiko eragiketa BEZari lotuta badago zergaren aplikazio-lurraldean, jaulkitzaileak edo edukitzaileak, bere izenean diharduen enpresaburuak edo profesionalak, bere izenean diharduen beste enpresaburu edo profesional bati edo helburuko edukitzaileari —edozein delarik ere haren izaera— eginiko eskualdaketa ere zergari lotuta egongo da lurralde horretan, eta jaulkitzaileak edo edukitzaileak BEZa jasanarazi beharko du fakturan, bonuaren ondasun-ematearen edo zerbitzu-prestazioaren tributazioari dagokion zerga-tasan; bonuaren izaera dela-eta, tasa hori ezaguna izan beharko da bonua jaulkitzen denean.

Balio bakarrekoko bonu baten eskualdaketa dagokion BEZaren sortzapena bonua eskuratzailearen esku dagoenean gertatuko da, salbu eta Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauaren 75.Bi artikuluan ezarritakoa aplikatu behar bada.

Bonu bat dela-eta ordaindutako prezioaren araberkoa izango da balio bakarrekoko bonuaren eskualdaketa zerga-oinarria, eta ulertuko da prezio horretan dagokion BEZaren kuota sartuta dagoela.

Bere izenean diharduen enpresaburu edo profesional batek balio bakarrekoko bonu bat eskualdatzearen ondoriozko BEZaren subjektu pasiboa enpresaburu edo profesional bera izango da, Balio Erantsiaren gaineko



Zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauaren 84.Bat.2 artikuluan adierazitako kasuan izan ezik.

2.1.2. Azpiko ondasunak egiaz ematea edo zerbitzuen prestazio materiala.

Ondasunaren hornitzaileak edo zerbitzuren emaileak ondasunak egiaz ematen dituenean edo zerbitzuen prestazio materiala egiten duenean edukitzaile batek aurkeztutako balio bakarreko bonu baten truke eta bonu hori ondasun edo zerbitzu horien kontraprestazio oso edo partzial gisa onartzen bada, ez da eragiketa independentea izango edukitzailearentzat.

Ondorioz, ondasunaren hornitzaileak edo zerbitzuaren emaileak ez dio BEZa jasanarazi behar ondasun edo zerbitzuarekin trukatzeko bonua aurkeztu duen edukitzaileari; izan ere, balio bakarreko bonuaren edukitzaileak, ondasuna edo zerbitzua eskuratu duenean, dagoeneko jasan du bonua eskualdatu dion jaulkitzaileak edo edukitzaileak edo bere izenean diharduen enpresaburuak edo profesionalak eginiko BEZaren jasanarazpena, ezertan eragotzi gabe subjektu pasiboa dela eta 2.1.1 puntuan ezarritakoa.

Zergaren aplikazio-lurraldean BEZari lotuta ez dauden ondasunen hornitzailea edo zerbitzuren emailea ez bada bere izenean diharduela balio bakarreko bonua jaulki duen enpresaburua edo profesionala, ulertuko da hornitzaileak edo emaileak bonuaren jaulkitzaileari eman dizkiola ondasunak edo egin dizkiola zerbitzuak.

Beraz, trukerako bonua aurkeztu duen edukitzaileari ondasuna egiaz ematen dion hornitzaileak edo zerbitzuaren prestazio materiala egiten dion emaileak BEZa jasanarazi beharko diote fakturan bonuaren jaulkitzaileari, adostu duten kontraprestazioaren ondoriozko zerga-oinarriari dagokion zerga-tasan, kontraprestazio hori dela eta hartu baitzuen hornitzaileak edo emaileak bonuaren edukitzaileari ondasuna edo zerbitzua emateko konpromisoa, bonua trukatzeko ondasun edo zerbitzu horrekin.

Une honetan gertatuko da ondasunaren hornitzaileak edo zerbitzuaren emaileak bonuaren jaulkitzaileari ondasunak edo zerbitzuak ematearen ondoriozko sortzapena: balio erantsiaren gaineko zergaren azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauaren 75.Bat artikuluan jasotako arauekin bat, uste denean hornitzaileak edo emaileak trukerako bonua aurkeztu duen edukitzaileari eginiko azpiko ondasun-emateak edo zerbitzu-prestazioak sortzapena sortu duela, salbu eta balio erantsiaren gaineko zergaren azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauaren 75.Bi artikuluan aplikatzekoa bada, jaulkitzaileak egin ditzakeen konturako ordainketak direla eta.

2.2. Beste enpresaburu edo profesional baten izenean eta kontura diharduen enpresaburu edo profesional batek balio bakarreko bonuaren eskualdaketa egiten duenerako operatiba.

Beste enpresaburu edo profesional baten izenean eta kontura diharduen enpresaburu edo profesional batek balio bakarreko bonu bat eskualdatzen duenean, ulertuko da beste enpresaburu edo profesional horrek —zeinaren izenean eta kontura diharduen enpresaburuak edo profesionalak— egin duela eskualdaketa, eta bonuaren ondasun-emateari edo zerbitzu-prestazioari dagokion tributazio-araubidean tributatu du, goiko 2.1.1 puntuan ezarritakoaren arabera.

Ondorioz, beste enpresaburu edo profesional baten izenean eta kontura diharduen enpresaburu edo profesional batek balio bakarreko bonu bat eskualdatzen duenean, beste enpresaburu edo profesional hori bonuaren jaulkitzailea edo bere izenean diharduen enpresaburu edo profesional bat bada, bi eragiketa egongo dira BEZari



lotuta:

A) Enpresaburu edo profesional komisiiodunak beste enpresaburu edo profesionalaren izenean eta kontura eginiko bitartekotza-zerbitzua.

Bitartekotza-zerbitzu hori BEZari lotuta egongo da zergaren aplikazio-lurraldean baldin eta hartzailea, bonuaren jaulkitzailea edo bere izenean diharduen beste enpresaburu edo profesional bat dela, finkatuta badago zergaren aplikazio-lurraldean, lurralde horretan bere jarduera ekonomikoaren egoitza duelako edo establezimendu iraunkorra duelako bitartekotza-zerbitzu hori emateko, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauaren 69.Bat.1 artikuluan ezarritako baldintzetan, Hori dela eta, ehuneko 21eko zerga-tasa orokorrean tributatuko da.

Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauaren 75. artikuluan jasotako arauen arabera izango da bitartekotza-zerbitzuaren ondoriozko zergaren sortzapena, zeinaren zerga-oinarria itundutako komisioa izango den.

Ondorio horietarako, enpresaburu edo profesional komisiiodunak edo hirugarren batek igorri ahal izango du eskualdaketa dokumentatzen duen faktura, fakturazio-betebeharrei buruzko araudiaren 5. artikuluan xedatutakoaren arabera (araudi hori Bizkaiko Foru Aldundiaren 2013ko urtarrilaren 22ko 4/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen).

B) Balio bakarreko bonu baten jaulkitzaileak edo edukitzaileak, bere izenean diharduen enpresaburuak edo profesionalak, bonu hori eskualdatzea eskuratzailerari. Eskualdaketa honen tributazio-araubidea 2. apartatu honen aurreko zenbakietan ezarritakoa izango da.

2.3. Jasanarazitako BEZaren kuoten kengarritasuna.

Balio bakarreko bonuaren jaulkipenean edo eskualdaketan beren izenean diharduten enpresaburuek eta profesionalak, bonuaren jaulkitzailearen edo bonua bere izenean eskuratu duen beste enpresaburu edo profesional baten izenean eta kontura diharduten enpresaburuek eta profesionalak, edo edukitzaileak trukerako aurkeztu duen balio bakarreko bonuaren truke ondasuna edo zerbitzua ematen duten enpresaburuek edo profesionalak eginiko ondasun eta zerbitzuen eskurapenetan jasanarazitako BEZaren kuotak kengarriak izango dira baldin eta kenkarirako eskubidea sortzen duten eragiketarako erabiltzen badira, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauaren VIII. tituluaren kenkaritako eskubidea egikaritzeko ezarritako eran eta mugen barruan.

3. Balio anitzeko bonuaren tributazioa balio erantsiaren gaineko zergan.

3.1. Balio anitzeko bonuen emateak BEZari lotuta ez egotea norberaren izenean jarduten denean.

Ondasunaren hornitzaileak edo zerbitzuren emaileak ondasunak egiaz ematen dituztenean edo zerbitzuen prestazio materiala egiten duenean edukitzaile batek aurkeztutako balio anitzeko bonu baten truke, eta bonu hori ondasun edo zerbitzu horien kontraprestazio oso edo partzial gisa onartzen bada, eragiketa hori BEZari lotuta egongo da, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauaren 4. artikuluan arabera.



Hala ere, balio anitzeko bonu horren aurreko eskualdaketak ez dira egongo BEZari lotuta.

Beraz, balio anitzeko bonu baten jaulkitzaileak edo edukitzaileak, bere izenean diharduen enpresaburuak edo profesionalak, bonua eskualdatzen badio bere izenean diharduen beste enpresaburu edo profesional bati edo bonuaren azken edukitzaileari (azken hori enpresaburua edo profesionala izan zein ez izan), ez da BEZari lotuta egongo balio anitzeko bonuaren ondasun-emate edo zerbitzu-prestazio gisa eta, beraz, ez du sortuko emate edo prestazio horri dagokion BEZaren sortzapena.

Bestalde, ondasun-ematearen edo zerbitzu-prestazioaren azpiko eragiketak, balio anitzeko bonuari dagokionak, BEZaren ondorioetarako tributatu du baldin eta bonuaren azken edukitzaileak ondasuna edo zerbitzua jasotzen badu ondasun-ematearen edo zerbitzu-prestazioaren ordainketa oso edo partzial gisa onartutako bonuaren truke eragiketa egiten duen enpresaburu edo profesionalarengandik.

3.2. Norberaren izenean diharduten hirugarrenek bonuak eskualdatzea. Sustapen-zerbitzua.

Edukitzaileak bonua trukutzen duenean ondasunak edo zerbitzuak eman behar dituen enpresaburua edo profesionala ez den beste enpresaburu edo profesional batek eskualdatzen badu balio anitzeko bonua, ulertu beharko da eskualdatzen duen enpresaburu edo profesionala, bonuaren jaulkitzailea izan edo bere izenean diharduen beste enpresaburu edo profesional bat izan, banaketa- edo sustapen-zerbitzu bat ematen ari dela BEZaren ondorioetarako.

Banaketa- edo sustapen-zerbitzua bakar-bakarrik egongo da BEZari lotuta zergaren aplikazio-lurraldean baldin eta enpresaburua edo profesionala lurralde horretan finkatuta badago, bertan bere jarduera ekonomikoaren egoitza duelako edo establezimendu iraunkorra duelako bere zerbitzua emateko.

Banaketa- eta sustapen-zerbitzuaren zerga-oinarria kalkulatzeko, marjina-sistema bat erabiliko da eragiketa bakoitzean: balio anitzeko bonuaren salmenta-prezioaren eta haren eskuraketa-prezioaren arteko alde positiboa izango da (prezio bietan, BEZa barne).

Hala ere, bonua jaulki duen enpresaburuak edo profesionalak emandako banaketa- edo sustapen-zerbitzuaren zerga-oinarria kalkulatzeko, berriz, balio anitzeko bonuaren jaulkitzailearen salmentaren prezioaren eta edukitzaileak bonua aurkezten duenean ondasun-ematea edo zerbitzu-prestazioa egingo duen enpresaburuari edo profesionalari jaulkitzaileak ordaindu behar dion zenbatekoaren arteko alde positiboa izango da (bietan, BEZa barne).

Balio anitzeko bonuaren banaketa- edo sustapen-zerbitzuak 100eko 21eko zerga-tasa orokorrean tributatu du.

3.3. Azpiko ondasun-ematearen edo zerbitzu-prestazioaren tributazioa.

Balio anitzeko bonu baten trukearen ondoriozko ondasun-ematea edo zerbitzu-prestazioa BEZari lotuta egongo da baldin eta ulertzen bada zergaren aplikazio-lurraldean egin dela, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauan zerga-oinarria egin den lekuari buruz jasotako arauen arabera.



Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauaren 75. artikuluan jasotako arauen araberakoa izango da ondasun-emate edo zerbitzu-prestazio honen sortzapena.

Balio anitzeko bonua trukerako aurkeztu duen edukitzaileari ondasuna ematen dion hornitzaileak edo zerbitzua egiten dion emaileak BEZa jasanarazi behar dio edukitzaileari fakturan, ondasun edo zerbitzu horri dagokion zerga-tasan.

Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauaren 78. eta 79. artikuluetan ezarritakoa gorabehera, balio anitzeko bonu bat dela-eta eginiko ondasun-ematearen edo zerbitzu-prestazioaren zerga-oinarria bonu horren truke ordaindutako kontraprestazioa bestekoa izango da, edo, kontraprestazio horri buruzko informaziorik ezean, balio anitzeko bonuan bertan edo hari lotutako dokumentazioan adierazitako moneta-balioa bestekoa, emandako ondasun edo zerbitzuei dagokien BEZaren kuota kenduta, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauaren 90. eta 91. artikuluetan ezarritakoarekin bat.

Ondorioz, balio anitzeko bonuaren ondasun-ematearen edo zerbitzu-prestazioaren zerga-oinarria hau izango da: edukitzaileak trukerako aurkeztu duen bonua eskuratu duenean ordaindutako zenbatekoa edo, hala denean, bonuan adierazitako balio-moneta; oinarrian, ondasun-emateari edo zerbitzu-prestazioari dagokion BEZaren kuota kendu beharko da. Kuota hori, beraz, edukitzaileak balio anitzeko bonua erosi zuenean ordaindutako kopuruan edo, hala denean, bonuan adierazitako balio-monetan jasota egongo da.

3.4. Balio anitzeko bonuen eskualdaketa eta banaketa hirugarrenen izenean eta kontura jarduten denean. Bitartekaritza-zerbitzuak.

Balio anitzeko bonu bat jaulki duen beste enpresaburu edo profesional baten izenean eta kontura edo bonua bere izenean banatu edo merkaturatzen duen enpresaburu edo profesional baten kontura diharduen enpresaburu edo profesional batek bonua eskualdatzen edo banatzen duenean, enpresaburuak edo profesionalak ez du emango balio anitzeko bonu bat banatzeko edo sustatzeko zerbitzua, baizik eta Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauaren 11.Bi.15 artikuluan aurreikusitako bitartekotza-zerbitzuetariko bat.

Bitartekotza-zerbitzu hori BEZari lotuta egongo da zergaren aplikazio-lurraldean baldin eta hartzailea, bonuaren jaulkitzailea edo bere izenean diharduen beste enpresaburu edo profesional bat dela, finkatuta badago lurralde horretan, bertan bere jarduera ekonomikoaren egoitza duelako edo establezimendu iraunkorra duelako bitartekaritza-zerbitzu hori emateko, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauaren 69.Bat.1 artikuluan ezarritako baldintzetan. Zerbitzu hori dela eta, ehuneko 21eko zerga-tasa orokorrean tributatu da.

Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauaren 75. artikuluan jasotako arauen araberakoa izango da bitartekotza-zerbitzuaren ondoriozko zergaren sortzapena, zeinaren zerga-oinarria itundutako komisioa izango den.



3.5. Jasanarazitako BEZaren kuoten kengarritasuna.

Balio anitzeko bonuaren banaketa- eta sustapen-zerbitzuak ez diren ondasunak edo zerbitzuak eskuratzeagatik jasanarazitako BEZaren kuotak, zerbitzuok ematen dituzten enpresaburuak edo profesionalek eginak direnean, kengarriak izango dira baldin eta kenkarirako eskubidea sortzen duten eragiketetarako erabiltzen badira, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauaren VIII. tituluan kenkaritako eskubidea egikaritzeko ezarritako eran eta mugen barruan.

Balio anitzeko bonuaren banaketa- edo sustapen-zerbitzuak ematen ez dituen jaulkitzaileak, jaulkitzailearen edo bonua bere izenean eskuratu duen beste enpresaburu edo profesional baten izenean eta kontura diharduten enpresaburuek eta profesionalek, edo edukitzaileak trukerako aurkeztu duen balio anitzeko bonuaren truke ondasuna edo zerbitzua ematen duten enpresaburuek edo profesionalek eginiko ondasun eta zerbitzuen eskurapenetan jasanarazitako BEZaren kuotak kengarriak izango dira baldin eta kenkarirako eskubidea sortzen duten eragiketetarako erabiltzen badira, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauaren VIII. tituluan kenkaritako eskubidea egikaritzeko ezarritako eran eta mugen barruan.

Balio anitzeko bonu baten truke egiten den ondasun-ematearen edo zerbitzu-prestazioaren hartzaile den enpresaburuak edo profesionalak eskubidea izango du ondasun-emate edo zerbitzu-prestazio horretan jasanarazitako BEZaren kenkarirako, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauan ezarritako eran eta mugen barruan, subjektu pasiboak kenkarirako eskubidea egikaritu dezan.

Bilbon, 2020ko ekainaren 16a

OGASUNEKO ZUZENDARI NAGUSIA

Sin.: Iñaki Alonso Arce.